

OSASUN-LAGUNTZA EMATEKO HITZARMEN BEREZIA
ESKATZEKO AZALPEN-GIDA, uztailaren 26ko 576/2013



OSASUN-LAGUNTZA EMATEKO HITZARMEN BEREZIA ESKATZEKO AZALPEN-GIDA

Zer da eta zertarako balio du?

Hitzarmen bereziak aukera ematen du Espainiako Osasun Sistema Nazionalaren (OSN) osasun-zerbitzuak eskuratzeko. Osasun-asegururik ez dutenentzat eta, hainbat arrazoiengatik, sistema publiko horretako aseguratu edo onuradun ez direnentzat da. Arrazoi horiek dira, besteak beste, Espainiako legeak, Gizarte Segurantzari buruzko Europar Batasuneko arauak edo Espainiak beste herrialde batzuekin dituen akordioak.

Nork eska dezake?

Nafarroako Foru Komunitatean bizi direnek eta baldintzak betetzen dituztenek.

Zer zerbitzu estaltzen ditu?

Osasun Sistema Nazionaleko laguntza-zerbitzuen oinarrizko zorro

komuna barne hartzen du:

- Prebentzioa: ez gaixotzeko.
- Diagnostikoa: zer gaixotasun duzun jakiteko.
- Tratamendua: sendatzeko.
- Errehabilitazioa: zure onera etortzen laguntzeko.

Larrialdietako osasun-garraioa ere barne hartzen du, larrialdi-kasuetan ospitalera azkar eramateko.

Zer zerbitzu ez ditu estaltzen?

Ez dira sartzen zorro komun osagarrian sartuta dauden prestazioak; hau da, produktu hauen prezioaren % 100 ordaindu behar duzu:

- Farmazietan erosten diren sendagaiak.
- Produktu ortopedikoak, hala nola makuluak edo gurpil-aulkiak.
- Produktu dietetikoak, dietetarako elikagai bereziak.
- Larrialdikoa ez den osasun-garraioa; hau da, mediku-hitzorduetara edo tratamenduetara modu programatuan joan behar duzunean.

Eskatzeko baldintzak

1. Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsonen artean, osasun-asegururik ez dutenak eta, hainbat arrazoiengatik, sistema publiko horretako aseguratu edo onuradun ez direnak. Arrazoi horiek dira, besteak beste, Espainiako legeak, Gizarte Segurantzari buruzko Europar Batasuneko arauak edo Espainiak beste herrialde batzuekin dituen akordioak.
2. Banakako eskaera: pertsona bakoitzak bere eskaera egin behar du, nahiz eta familia berekoak izan.
3. Nafarroako Foru Komunitateko udalerriren batean erroldatuta egon behar duzu eskaera aurkezten duzun unean.

4. **Hitzarmena eskatu aurreko azken urtean gutxienez Espainian bizi izana egiaztatzea** Osasun-hitzarmen berezia eskatu ahal izateko, frogatu behar duzu eskaera egin aurreko azken urtean Espainian bizi izan zarela modu jarraituan. Edo Europar Batasuneko beste estatu batean, Europako Esparru Ekonomikoko estatu batean, Suitzan edo Erresuma Batuan bizi izan bazara. 883/2004 (EE) Erregelamenduaren 6. artikuluko arauak betetzeko.
5. Diru kopuru bat ordaindu behar duzu osasun-hitzarmen berezia izateko, egungo araudiak ezartzen duenaren arabera (uztailaren 26ko 576/2013 Errege Dekretuaren 6. artikulua). Hitzarmena sinatzen duenak zenbat urte dituen, horren arabera da ordaindu beharreko kopurua:
- a) 65 urte baino gutxiago baditu, hilean 60 euro ordaindu behar ditu.
 - b) 65 urte edo gehiago baditu, hilean 157 euro ordaindu behar ditu.
 - c) Zenbait kasutan, ez da ordaindu behar hileko kopuru hori. Ordaintzetik salbuestea esaten zaio horri, eta horrek esan nahi du pertsona egoera ekonomiko eta sozial ahulean dagoela, Nafarroako Gobernuak 2018ko apirilaren 6an hartutako Erabakiaren arabera. Hori eskatzeko, **txosten sozial** bat aurkeztu behar duzu. Zure bizilekuaren arabera dagokizun osasun-etxeko gizarte-langileak egiten du txosten hori.

Ordaindu beharreko zenbateko hori denborarekin aldatu daiteke; izan ere, osasun-sistemak une bakoitzean ematen dituen osasun-zerbitzuek duten kostuen arabera izanen da, oinarrizko zorro komuneko prestazioen tarifa kontuan hartuta. Aldaketa horiek kasuan kasuko arauetan ezartzen dira.

Nola eta non eskatu?

- **Aurrez aurre:**

- Dagokizun osasun-etxean, aldez aurretik hitzordua eskatuta osasun-etxeko gizarte-langilearekin.
- Humanizazio, Aseguramendu eta Departamentuarterko Koordinazio Zerbitzuan. Telefonoa: 848 423198.

- **Telematika bidez:**

Esteka honetan:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/osasun-laguntza-emateko-hitzarmen-berezi-bat-sinatze-ko-eskaera>

Izapide telematikoa egin ahal izateko, ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa edo CI@ve iraunkorra behar da nahitaez.

Aurkeztu beharreko agiriak

Hitzarmana eskatzeko, agiri hauek aurkeztu behar dituzu:

1. Eskabide osoa. Eskabide bat bete eta sinatu behar duzu.
2. Atzeritarraren identifikazio-zenbaki (AIZ) iraungi gabearen fotokopia bat.
3. Bizileku-baimenaren fotokopia bat.

4. Ordezkarri batek eskatzen badu hitzarmena, honako agiri hauek ere aurkeztu behar dituzu:

- Zure ordezkarria nor den dioen agiriaren fotokopia bat.
- Zure ordezkarriaren nortasun-agiri (NANa/AIza/pasaportea) iraungi gabearen fotokopia bat.
- Adingabe baten izenean ari bazara (semea, alaba, biloba eta abar), familia-liburuaren fotokopia bat aurkeztu behar duzu.

5. Errolda-ziurtagiria. Agiri horretan agertzen da non eta noiztik bizi zaren Nafarroan, eskabidea egiten duzun unean.

6. Hitzarmena egiteko, frogatu behar duzu Espainian bizi izan zarela gutxienez urtebetez osasun-hitzarmen berezia eskatu aurretik. Horretarako, agiri hauek aurkezten ahal dituzu:

- a. Errolda-ziurtagiria, Espainiako hiri edo herri batean bizi izan zarela frogatzen duena.
- b. Beste agiri batzuk, azken urtean Espainian bizi izan zarela frogatzen dutenak: alokairu-kontratuak, prestakuntza-ikastaroak eta abar.
- c. **Kasu guztietan**, zure egungo pasaportearen fotokopia bat aurkeztu behar duzu, sarrera eta irteera guztiak agertzen dituenak. Zure pasaportea azken urtean berritu baduzu, haren fotokopiak ere aurkeztu behar dituzu, frogatzeko Espainian urtebetez bizi izan zarela gutxienez eskaera egin aurretik.

7. Ordaintzetik salbuesteko eskatu nahi baduzu, hitzordua eskatu behar duzu osasun-etxeko gizarte-langilearekin, hark **txosten sozial** batean justifikatu dezan egoera sozial ahulean zaudela, Nafarroako Gobernuak 2018ko apirilaren

6an hartutako Erabakiaren 1. puntuaren arabera, honela baitio: “1. Egoera ekonomiko eta sozial bereziki ahulean dauden pertsonak osasun-hitzarmen bereziari dagokion prezio publikoa ordaintzetik salbuestea”.

Eskabideak aurkeztea

Eskabidea eta beharrezko agiriak honela aurkeztu behar dituzu:

1. Aurrez aurre:

- a) Osasun-etxeko gizarte-langilearekin aldeztu aurretik hitzordua eskatuta.
- b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erregistro orokorraren bulego batean.

2. Telematika bidez

Esteka honetan:

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/osasun-laguntza-emateko-hitzarmen-berezi-bat-sinatzeko-eskaera>

Izapide telematikoa egin ahal izateko, ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa edo Cl@ve iraunkorra behar da nahitaez.

Informazio osagarria

- Helbidea, telefonoa edo bizileku-baimeneko datuak aldatzen badira, NANA eskuratzen baduzu edo Osasun Sistema Nazionalaren bidez osasun-estalduraren titularra edo onuraduna bazara, horren berri eman behar diozu osasun-etxeko langileari, edo eskabide orokor bat aurkeztu

behar duzu, Humanizazio, Aseguramendu eta Departamentuarterko Koordinazio Zerbitzuari zuzendua, aldaketen berri emateko.

- Hitzarmena eskatzeko aurkezten diren datuak Populazioaren Informazio Sistemaren eta Osasun Txartela Kudeatzeko Sistemaren fitxategietan gordeko eta tratatuko dira, eta Datu Pertsonalen Erregistroan inskribatuko dira, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan. Datu horiek ezin dira laga, legeak ezarritako kasuetan izan ezik.
- Hitzarmenak balioa izanen du inolako mugarik gabe, azkentzen ez den bitartean.
- 576/2013 Errege Dekretuaren 7.1 artikuluan jasotzen dira hitzarmena azkentzeko arrazoiak. Kasu hauetan azkenduko da:

a) Hitzarmen berezia sinatu duen pertsona hiltzeagatik.

b) Hitzarmen berezia sinatu duenak 3. artikuluan aipatzen diren baldintzetako bat betetzeari uzten dionean, Osasun Sistema Nazionalaren aseguratu edo onuradun bilakatzen denean edo, zein autonomia-erkidegotako administrazio publikoarekin duen hitzarmena, autonomia-erkidego horretako udalerrri batean erroldatuta egoteari uzten dionean.

c) Hitzarmen berezia sinatu duen pertsonak hala erabakita; erabaki hori modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio hitzarmena formalizatu duen administrazioari.

d) Lehen kuota ez ordaintzeagatik, edo bi hilabetez jarraian nahiz hiru hilabete bereizitan kuota ez ordaintzeagatik.

e) 5. artikuluko d) letran aipatzen diren baldintza berezietako bat ez betetzeagatik; hots, osasun-zerbitzuak nola erabili behar diren ezartzen duten arauak ez betetzeagatik, Espainiako legeen eta jardunbide egokien arabera.

Organo arduraduna

Humanizazio, Aseguramendu eta Departamentuarteko Koordinazio

Zerbitzua (Osasun Zuzendaritza Nagusia)

Harremanetarako telefonoa: **848423198**

Araudia

1192/2012 Errege Dekretua, Espainian funts publikoen kargura Osasun Sistema Nazionalaren bidez osasun-laguntza jasotzeko aseguratu eta onuradun izaera arautzen duena.

576/2013 Errege Dekretua, Osasun Sistema Nazionalean aseguratu edo onuradun ez diren pertsonen osasun-laguntza emateko hitzarmen bereziaren oinarritzko baldintzak ezartzen dituena eta 1192/2012 Errege Dekretua aldatzen duena (1192/2012 Errege Dekretua, Espainian funts publikoen kargura Osasun Sistema Nazionalaren bidez osasun-laguntza jasotzeko aseguratu eta onuradun izaera arautzen duena).

Gobernuaren 2018ko apirilaren 6ko Erabakia, zeinaren bidez erabakitzen baita Nafarroan osasun-laguntza jasotzeko hitzarmen berezietan ezarritako prezio publikoa ordaintzetik salbuestea, ordainketak egoera ekonomiko eta sozial bereziki ahulean dauden pertsonen eragiten badie